

# Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen hedapena eta irudikapena egunkarietan

Nahia Idoyaga, Garbiñe Ortiz, Jose F. Valencia, Lorena Gil de Montes eta  
Maider Larrañaga  
EHU/UPV

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea Euskal Autonomia Erkidegoan 2005ean eta Espainiako estatuan 2007an onartu zen. Ikerlan honetan, lege horren aurkezpena aztertzen da egunkarietako iritzi-sailean. Helburu nagusia da legearen agerpena eta tratamendua ezagutzea, horretan egunkarien ideologiak eta hedapen-eremuak duten eragina aztertuz. Emaitez adierazi dutenez, aldagai horien arabera ezberdintasunak frogatu dira legeari buruz argitaratutako iritzi-artikuluetan, bai kopuruan, bai egindako ebaluazioan, baita aurkezteko erabilitako markoetan ere (Semetko eta Valkenburg, 2000). Azkenik, komunikabideek duten rola inplikazio teoriko eta aplikatuak eztabaidatzen dira.

GAKO-HITZAK: Komunikabideak · Genero-berdintasuna · Legea · Framing.

## Newspaper coverage and representation of the law of equality among men and women

The law of equality between men and women was dictated in the Basque Autonomous Community in 2005 and the Spanish state in 2007. This paper analyzes the reporting of the law in the opinion section of several newspapers. The aim of the study was to understand the presence and the treatment of this law by analyzing the influence that newspapers and their coverage had on it. Results confirmed the effect of newspapers' ideology and coverage in the quantity, evaluation and frame use (Semetko and Valkenburg 2000) in the articles. Finally theoretical and applied implications of the role of the media in creating the discourse are discussed.

KEY WORDS: Mass media · Gender-equality · Law · Framing.

*Jasotze-data:* 2011-10-11. *Onartze-data:* 2012-04-18.

## 1. Sarrera

Gure gizarte konplexu honetan gertakizunak ezagutzeko eta interpretatzeko hedabideen<sup>1</sup> kontakizuna ezinbesteko bidea da. Baina hedabideek eta haien hedapenen estrategiek gertakizun batzuk gizartearen aurrean plazaratzen dituzte eta beste batzuk ezkutatu. Plazaratutakoen artean batzuk soilik, garrantzia eta jarraipena emanez, epe luzeetarako agenda-gai bihurtzen dituzte; eta gai horiek identifikatzeko eta interpretatzeko kokatze edo marko bereziak erakitzen dituzte albisteen tratamenduen bitartez. Hedabideen pauso horiek guztiek beren eragina dute gizartearen iritzi publikoan: alegia, gizarteak berak gaiari zelako garrantzia ematen dion eta komunikabideen eskutik ezagutu duen gertakizun hori nola interpretatzen duen.

Abiapuntu horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoan —EAE— eta Espainiako estatuan indarrean dagoen *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeari* komunikabideetan emandako garrantzia eta tratamendua aztertzea da artikulu honen helburu nagusia, lege horri buruzko irudikapen sozialak eraikitze orduan egunkarien papera, hain zuzen.

### 1.1. Berdintasuna eta legea Espainiako estatuan

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna 1978ko Konstituzioan onartu zen lehen aldiz Espainiako historian. Bigarren Errepublika arte emakumeek ez zuten bozkatzeko eskubiderik ere izan eta, ondorioz, esan daiteke momentu horretatik aurrera hasi zirela lehen aldiz espazio publikora zabaltzen (aurretik, debekatuta zeuzkaten lanbide eta ikasketak, lanbide publikoak izateko eskubidea bera, banatzeko eskubidea, eta abar) (Nash, 1999; Ruiz, 2000).

Halere, Errepublika aldiaren lortutako aldaketak konstituzio errepublikazalearekin batera ezabatuak izan ziren Francok 1936an emandako estatu-kolpe eta ondorengo gerra zibilaren ostean, Erreinuko Oinarrizko Legeek (1938-1977) ordezkaturia izan zelarik 1978an Konstituzioa onartu zen arte. Esan bezala, frankismoaren ezarrerarekin bat etorri zen, batez ere, mugimendu feministak egindako presioaren eraginez. 1978ko Konstituzioan sexuen arteko berdintasun osoa onartu zen, ondoren Kode Zibilean, Zigor Kodean eta lan-legedian egindako erreformetan islatu zena.

Hirurogeiko hamarkadako industrializazioa heldu behar izan zen emakumeek nolabaiteko protagonismoa berreskuratzeko, batez ere ikasketa- eta lan-munduetan leku zabalagoa lortzeko. Baina aldaketarik nabarmenena demokraziaren ezarrerarekin bat etorri zen, batez ere, mugimendu feministak egindako presioaren eraginez. 1978ko Konstituzioan sexuen arteko berdintasun osoa onartu zen, ondoren Kode Zibilean, Zigor Kodean eta lan-legedian egindako erreformetan islatu zena.

Aipaturiko testuinguruari jarraiki heldu ziren emakume eta gizonen artean aukera- eta tratu-berdintasuna dakarten legeen onarpenak. Horien adibide ditugu Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrak onartu zuen 4/2005 Legea, otsaila-

---

1. Artikulu honetan «hedabideak» edo «komunikabideak» hitzak erabiltzen dira ingeleraz «mass media» deitzen dena adierazteko.

ren 18koa, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa* (EHAA, 2005) eta Espainiako Gorteek onartutako 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, *Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerakoa* (EAO, 2007).

Lege horiek hainbat neurri dakartzate, hauteskunde-legearen erreforma eta lan-eremuan aplikatzekoak neurri nabarmenenak dira. Izan ere, neurri horien bidez bizitza familiarraren eta laboralaren arteko kontziliazioa erraztu nahi da, baita emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko neurriak ere lanerako sarreran, formazioan eta lanbidean aurreratzean (Castro eta Álvarez, 2007). Halere, legearen berrikuntza nagusia hauxe da: lehen aldiz emakumeen aldeko diskriminazio positiboa gauzatzeko aukera ematea (Bustos, 2007).

Beraz, legearen helburua eta ezaugarriak kontuan izanda, hedabideetan izan duen oihartzuna eta tratamendua ikertzea garrantzizkoa da, prozesu erraldoi honek esfera publikoan izan duen esanahia ulertzeko.

## 1.2. *Framing* eta komunikabideak

Hirurogeita hamarreko hamarkadan komunikabideei buruzko ikerkuntzan toki aipagarria hartu zuen *Agenda-Setting* deritzon teoriak (McCombs eta Shaw, 1972). Oinarrizko ideia da komunikabideek moldatzen dituztela pertsonok hitz egin eta pentsatzen ditugun gaiak. Ikerketa-alor horrek komunikabideek jorratzen dituzten gaien eta pertsonok garrantzitsu kontsideratzen ditugun gaien arteko erlazio kausalak daudela aditzera ematen du. Horrela, ikerketek frogatu dute komunikabideek jorratzen ari diren zenbait gai aztertzekeo enfasia aldatzean, pertsonok gai horiei ematen dieten garrantzi-maila ere aldatzen dela.

Hasiera batean horretara mugatzen zen komunikabideen eraginari buruz aipaturiko teoria, hots, errealitatearen hautemate sozialean komunikabideek agindu ahal zutela *zeri buruz* pentsatu —gai publikoen lehentasunak edota garrantzi-maila—, baina ez zutela ia eraginik gai horiei buruz *zer* pentsatu behar zen erabakitzekeo orduan. Geroago baina, ikuspuntu horri *agendaren lehen maila* izendatuta, teoria berak azaldu zuen *agendaren bigarren maila* bat zegoela (McCombs, 2004; Shah *et al.*, 2009). Bigarren maila horren arabera, komunikabideek albisteak plazaratzean erabilitako atributuek pertsonok gai horiei buruz egin duten ebaluazioan eragina dute. Beraz, gertakizunei buruz gizarteak *zer* pentsatzen zuen —alegia, nola interpretatzen zituen gertakizunok— komunikabideen kontakizunean jarritako interpretaziotik zetorren, hor emandako interpretazio-kokatzetik.

Agendaren bigarren maila horri, gertakizunen atributuen agenda horri, *Agenda-Setting* teoriatik *Framing* esaten diote, enkoadratzea edo kokatzea. *Framing*-a arazoak adierazteko modua da, arazoak definitzen eta ebazten eta iritzi publikoa moldeatzen laguntzen duen mekanismo boteretsua (Knight, 1999). *Framing* kontzeptua era anitzetan definitua izan den arren (Scheufele, 1999; Scheufele eta Tewksbury, 2007; Takard, 2001), Goffman-en ekarpena (1974) onartuenetariko bat izan da. Autore horren aburuz, markoak edo frames «interpretazio-eskemak» dira, eta jendeari bizitzako gertaerak «zentzua edo esanahia duen zerbait bezala» antolatzekeo aukera ematen diote. Hau da, markoak egoera definitzeko era dira (Pan eta Kosicki, 2001). Ideia horiei jarraituz, Entman-en arabera (1993) markoek ondorengo ezaugarriak betetzen dituzte: 1) arazoak definitzen dituzte; 2) arazoan

kausak aurkitzen dituzte; 3) arazoen iturriari buruzko judizioak egiten dituzte, eta 4) arazoentzako konponbideak proposatzen dituzte.

*Framing*-ak izaera bikoitza du. Izan ere, alde batetik, markoak pertsonen diskurtso nahiz ideietan daude eta, bestetik, *framing* diskurtso eta ideia horiek lotzen dituen eragin-prozesu sozialari deritza (Pan eta Kosicki, 2005). Komunikabideek erabilitako markoek iritzi publikoan duten garrantzia eta hartzaileek gai publikoei emandako esanguran duten eragina (Gamson, 1992; Kinder eta Sanders, 1996; Pan eta Kosicki, 2005) azpimarratu izan dira *framing* teorian.

Eduki-analisia egiten duten ikerketetan markoak identifikatu dituzte albisteetan. Semetko eta Valkenburg (2000) autoreek Europako albiste politikoei buruz eginiko ikerketan landu zituzten bost markoek ikerkuntzarako adostasun zabala lortu dute: gatazka-markoa, pertsonetikiko interesaren markoa, ondorio ekonomikoen markoa, moralitasunaren markoa eta erantzukizuna egoztearen markoa.

*Gatazka-markoak* pertsonen, taldeen edota instituzioen artean gerta daitezkeen gatazkak adierazten ditu, audientzia-mailarik altuenak lortzeko asmotan. Politikaren eremuan eta komunikabide serioenetan agertu ohi da (Semetko eta Valkenburg, 2000)

Pertsonetikiko *interesaren markoak* gertaera, albiste edo arazo baten lanketari «gizatasuna edo aspektu emozionala» ematen dio. Albisteak pertsonalizatzea, dramatizatzea edota hauen bidez emozioa sortzea hartzaileak erakartzeko helburuarekin sarritan erabiltzen diren teknikak dira (Semetko eta Valkenburg, 2000).

*Moralitasunaren markoak* gertaera edota arazoa moralitasun edota preskripzio sozial edo erlijiosoen ikuspuntutik aztertzen du. Kazetariak izaten duten objektibotasun-beharrak eraginda, marko hau zeharkako moduan agertu ohi da, beste norbaiti egindako aipamen edota inferentziaren bidez batik bat.

*Ondorio ekonomikoen markoak* gertaera edo arazo batek pertsona, talde, instituzio, herrialde edo lurralde bati ekar diezazkiokeen ondorio ekonomikoak lantzen ditu.

Azkenik, *erantzukizunak egoztearen markoak* arazo edo gertaeraren kausa edo konponbidea gobernu, pertsona edo talde bati egozten dio. Markorik erabiltzenetako bat da komunikabide serioenen artean (Semetko eta Valkenburg, 2000).

Semetko eta Valkenburg-en (2000) marko orokor horien erabilera aztertu dute hainbat ikerketak. Hain zuzen, komunikabideek gai sozial eta politikoak —immi-grazioa, krisiak, eskubide sexualak— aurkezteko markoen erabilera ezberdina egiaztatu dute (An eta Gower, 2009; Igartua, *et al.*, 2004; Kenix, 2008; Rodríguez eta Mena, 2008). Baina zerk bultzatzen du arazoa era jakin batean aurkeztera? Komunikabideek balio edo ideologia nagusiei mesede egiten dietela edota diskurtsoak sortzen dituztela ez da ideia berria (Martin eta Oshagan, 1997; Van Dijk, 1997). *Framing*-aren alorreko ikerketak aditzera eman duenez, lerro ideologikoak, arau eta balio sozialek edota ohiturek eragina izan dezakete komunikabideek egiten duten gaiaren aurkezpenean (Scheufele, 1999). Komuni-

kabideen kokapen ideologiko edota politikoak duen zeresana aztertzeko lan berriak daude *framing*-aren inguruan. Esaterako, estatu mailako egunkariak aztertu dituzten hainbat ikerketa berritan informazioaren trataera ezberdina aurkitu da komunikabideen ezaugarrien arabera, zabalitzen diren eduki, jarrera zein iturriei dagokienez (e.b. Berganza, 2008; Humanes, 2009; Igartua, Muñiz eta Cheng, 2005).

Hemen aurkezten den ikerlanean, besteak beste, marko orokorren erabilera aztertu nahi zen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen kasuan. Oro har, komunikabideek jokatzeko duten rolari erreparatu nahi zitzaion, legeari buruzko eduki-analisia eginez —zer eta nola aurkezten den— eta hedapen-ekintzek genero-berdintasunaren legea onartzean edo interpretatzean izan dezaketen eragina eztabaidara ekarriz. Beraz, aipaturiko kokapen teorikoetan oinarrituz, berdintasun-legeak egunkarietan izandako tratamendua aztertzen da. Batetik, legea egunkarietan iritzi-sailean izandako agerpena kuantifikatu eta agerpen horren irudi edo ebaluazio orokorra ezagutu nahi zen, haren oihartzuna aztertzearen. Bestetik, egunkarietako editorialetan legeari buruz aritzean erabilitako markoak identifikatu eta esanahia aztertu nahi zen. Legearen oihartzuna eta esanahia aztertzeko orduan, egunkarietako ildo ideologikoa eta hedapen-eremua hartu ziren kontuan.

## 2. Metodoa

### 2.1. Lagina eta analisi-unitatea

*El Correo*, *El Diario Vasco*, *Gara*, *Berría*, *El Mundo*, ABC, *El País* eta *La Vanguardia* egunkarietako paperezko edizioetako iritzi-sailetan Berdintasunerako Legea aipatzen zuten artikuluetatik aztertu ziren. Horrela, analisi-unitatea artikulua izan zen. Guztira, 403 iritzi-artikulu batu ziren, horietatik 112 editorialak ziren eta gainerako 291 artikuluetatik iritzi-saileko bestelako ataletakoak ziren.

### 2.2. Diseinua

Ikerketan bi aldagai aske edo aurreale aztertu ziren: egunkarietako hedapen-eremua (EAEkoa edo Estatukoa) eta ideologia<sup>2</sup> (eskuinekoa, hau da, maila politiko zein sozialean ideologia kontserbadorea hedatzen duena; edo ezkerrekoa, ideologia aurrerakoa hedatzen duena).

Mendeko aldagai gisa, iritzi-artikuluen kopurua neurtu zen (editorialak eta bestelakoak), baita horietan alde-aurka dimentsioan legeaz egiten zen ebaluazio orokorra ere. Horretaz gain, editorialetan legearen aipamena legea bera eztabaidatzeko edo beste gai edo helburu batzuei buruz hitz egiteko erabiltzen zuten aztertu zen. Bukatzeko, Semetko eta Valkenburg-ek (2000) proposatutako bost markoen erabilera neurtu zen editorialetan.

---

2. Tradizionalki, komunikabideen diskurtsoa lantzean ABC eta *El Mundo* eta *Diario Vasco* eta *El Correo* ideologia kontserbadoretzat hartu izan dira, zentro-eskuineketzat alegia, eta *El País* eta *La Vanguardia* eta *Berría* eta *Gara* ideologia progresistatzat, zentro-ezkerreketzat, alegia (ikus, esate baterako, Otero (2011) osasun-alorrean, Igartua eta lag. (2005) immigrazio-alorrean, Valencia eta lag. (1998) iritzi politikoaren alorrean eta Valencia eta lag. (2012) gertaera politikoen alorrean. Espainiako prentsaren analisi ideologikorako ikus e.b. Alcover eta Simon, 1998).

## 2.3. Prozedura eta kodifikazioa

Ideologia eta hedapen-eremuaren arabera sortutako lau taldetik bina egunkari hautatu ziren. Horrela, EAEko eskuineko bi egunkari eta ezkerreko beste bi aukeratu ziren ikerketarako; eta berdin egin zen Espainiako estatukoekin. CIES Euskadiko komunikabideetako entzuleen ikerketaren<sup>3</sup> eta EGMren (Estudio General de Medios) arabera<sup>4</sup>, aukeratutako egunkariek sei bat milioi irakurle dituzte eguneko eta irakurrienetakoen artean daude.

Datu-bilketa 2004. urtetik 2008. urtera arte egin zen, hau da, EAEko legea onartu baino urtebete lehenago hasi eta Estatuko legea onartu eta urtebete geroago bukatu. Artikuluak hautatzeko, egunkari bakoitzeko datu-baseetan bilaketa sakona egin zen, «genero-berdintasuna-legea» hitzak bilatuz iritzi-saileko artikuluetan. Artikuluak erregistratzeko ondorengo aldagaiak hartu ziren: egunkariaren izena, argitaratze-data, iritzi-saileko azpisaila (editoriala zen edo ez), genero-berdintasuna aipatzea (bai edo ez) eta legea aipatzea (bai edo ez). Legea aipatzen zuten artikulua guztiak aztertu ziren legeari buruzko ebaluazio orokorra (aldekoa, deskribatzailea, kritikoa, kontrakoa) kodifikatuz. Aldagai horien bidez legearen oihartzuna aztertu ahal izan zen, kopuruetan eta tonu ebaluatzailean.

Gainera, artikulua editorialetan legearen aipamen mota kodifikatu zen, legea bera eztabaidagai zen edo beste gai batzuetarako erabiltzen zen bereiziz. Bukatze-ko, editorialetan erabilitako markoak kodifikatu ziren, Semetko eta Valkenburg-en eskala erabiliz (2000). Eskala hori 20 itemez osatuta dago: erantzukizunak egoztearen markorako 5 (adibidez, «*Aditzera ematen du kontakizunak gizabanako edo talde erantzulerik dagoela?*»), gatazka-markorako 4 item (adib.: «*Kontakizunak aldean, gizabanakoen, taldeen edo herrialdeen arteko desadostasunik adierazten du?*»), ondorio ekonomikoen markorako 3 item (adib.: «*Aipatzen da finantza-irabazirik edo galerarik orain edo etorkizunean?*»), gizakiekiko interesaren markorako 5 item (adib.: «*Azpimarratzen du kontakizunak arazoak nola eragiten dien gizabanakoei eta taldeei?*») eta moraltasunaren markorako 3 item (ad.: «*Ematen du kontakizunak nola portatu edo zer egin erabakitzeke agindu sozial zehatzik?*»). Kodifikazio horren epaileen arteko adostasun-indizeak egokiak izan ziren, item guztietan 0,80 baino handiagoak izanik (Cohen-en Kappa > 0,80).

## 3. Emaizak


### 3.1. Legea kopuruetan egunkarietako iritzi-atalean

Guztira genero-berdintasuna aipatzen zuten 1.532 iritzi-artikulu bildu ziren. Horietatik 403 artikuluk (% 26,30) jasotzen zuten Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea. Lagina osatzen zuten 403 artikulua horien artean, 112 (% 27,79) editorialak ziren eta 291 (% 72,2) iritzi-sailean argitaratutako bestelako artikulua. Denborari so eginez gero, argitaratutako artikulua kopurua gora doa 2004tik (% 7,2; 2005ean % 21,1) 2006ra (% 32,3), 2007an (% 30,8) behera egiten du eta, batez ere, 2008an (% 8,7).

3. <<http://download.aimc.es/aimc/02egm/resumegm307.pdf>>.

4. <<http://www.ciessl.com/pdf2009/07.lectoresulteusyadi.pdf>>.

Khi karratuaren testa burutu zen argitaratutako artikuluko kopuruan egunkariaren ezaugarrien arabera ezberdintasun estatistikoki esanguratsurik zegoen aztertzeko. Egunkariaren ideologiaren eta hedapenaren arabera, ezberdintasunak egon ziren legeari buruzko argitaratutako artikuluko kopuruan ( $X^2(3)=29,17$ ;  $p < 0,001$ ). Ezkerreko egunkariak eskuinekoak baino gehiago argitaratu zuten, bai Estatuan bai EAEn (ikus. 1. irudia). Bestalde, EAEko egunkariak Estatukoak baino artikuluko gehiago argitaratu zuten, ezkerrekoak nahiz eskuinekoak. Horrela, EAEko ezkerreko egunkariak argitaratu zuten artikuluko gehien eta Estatuko eskuineko egunkariak gutxien.




**1. irudia. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeari buruzko iritzi-artikuluen portzentajea, egunkariaren kokapen ideologiko eta hedapenaren arabera.**

### 3.2. Legeari buruzko ebaluazioa iritzi-atalean


Legeari ematen zitzaion esanahia aztertzeko, 403 artikuluen eduki-analisia egin zen. Deskribapena edo jarrera neutrala izan zen nagusia iritzi-artikuluen artean (% 37,2), jarraian, aldeko iritzia (% 30,8) agertzen zen eta, azkenik, aurkako iritzia (% 18,6) eta iritzi kritikoa (% 13,5).

Denbora kontuan izanda, urteak aurrera joan ahala legeari buruzko iritzian aurkako jarrera nagusitzen doa eta aldekoa galtzen ( $X^2_{(12)}=78,57$ ;  $p < 0,001$ ) (ikus 2. irudia). Izan ere, 2004an aldeko ebaluazioa artikuluen % 62,1 izatetik 2008an artikuluen % 22,9 izatera pasatu zen. Legeari buruzko aurkako ebaluazioa, berriz, 2005ean % 2,4 izatetik (2004an ez zen aurkako iritzirik argitaratu) 2008an % 51,4 izatera pasatu zen. Bestalde, iritzi kritikoa mantendu egiten da (2004an %9 eta % 8,5, hurrenez hurren). Bukatzeko, tonu deskribatzailea 2007. urtera arte igotzen joan zen arren —2004an % 20,7 izatetik 2007an % 44,1 izatera pasatuz— 2008. urtean dezente gutxitu zen, % 5,7koa izanik.



**2. irudia. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeari buruzko artikuluen ebaluazioaren portzentajea urteka.**

Egunkari mota bakoitzaren (ideologia eta hedapen-eremua kontuan izanda) eta ebaluazioaren arteko erlazioa aztertuz, desberdintasunak aurkitu ziren egunkarien artean ( $X^2(9)=248,91$ ;  $p<0,000$ ) (ikus 3. irudia). Izan ere, Estatuko eskuineko egunkariek batez ere legearekiko aurkako ebaluazioa adierazten zuten (% 81,5); Estatuko ezkerrekoek, aldiz, batik bat legearen aldeko ebaluazioa agertzen zuten (% 60,5), tonu deskribatzailearekin konbinatuz (% 30,2). EAEko egunkariei dagokienez, modu deskribatzailea eta aldekoa ziren nagusi; halere, ezkerrekoen kasuan, batik bat aldeko ebaluazioa agertzen zen (% 46,7) eta eskuinekoen kasuan deskribapena (% 45,7). Bestaldetik, EAEko egunkarietan Estatuko egunkarietan baino iritzi kritiko gehiago agertzen ziren iritzi-artikuluetan, ezkerrekoetan % 23,4 eta eskuinekoetan % 17,1 izanik.



**3. irudia. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeari buruzko iritzi-artikuluen ebaluazioaren portzentajea, egunkarien posizio ideologiko eta geografikoaren arabera.**



Horrenbestez, eskuineko posizio ideologikoa duten Estatuko egunkarietan batez ere legearen kontrako iritziak antzeman zitezkeen; EAEko egunkarietan iritzi neutral edo aldekoagoak agertzen ziren, ordea. Bestalde, ezkerreko posizio ideologikoko egunkarietan batez ere legearen aldeko tonua edo deskribapena erabili ohi zuten, nahiz eta EAEko egunkariek iritzi kritikoa adierazteko joera ere bazuten.

### 3.3. Legearen aipamena editorialetan

Legeari buruzko analisisan sakondu nahian, atal honetan eta hurrengoan artikuluko editorialak baino ez ziren aztertu.

Aztertutako editorialen edukiari dagokionez, editorial guztien artean 42k (% 37,5) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bera zuten eztabaidagai eta 70ek (% 62,5) beste helburu batzuetarako aipatzen zuten legea —adibidez, Rodríguez Zapatero Espainiako presidentek gobernuan egindako lorpenak azaltzeko, emakume langilearen nazioarteko egunari buruzko editorialetan edota Hondarribiko Alardeari buruzkoetan—.

Gainera, legea aipatzeko modu horietan desberdintasun esanguratsuak aurkitu ziren egunkari motaren arabera ( $X^2(3)=8,41$ ;  $p < 0,05$ ). Taulan ikus daitekeen bezala (ikus 1. taula), legea aipatzearen helburuak —legea bera eztabaidatzea edo bestelako helburuak— antzean banatzen ziren egunkari guztietan, EAEko ezkerreko egunkarien kasuan izan ezik. Izan ere, Estatuko ezkerreko egunkarietan eta EAEko eskuineko egunkarietan bestelako helburuetarako aipatzeko joera egon arren, alderik handiena EAEko ezkerreko egunkarietan zegoen. Horrelakoetan legea beste gai batzuk eztabaidatzean aipatzen zen gehienetan, editorialen % 83,3an, hain zuzen.

**1. taula. Berdintasunerako Legea bera eztabaidatzeko edo bestelako helburuetarako aipatzen duten editorialen maiztasuna eta portzentajea egunkarien posizio ideologikoaren eta hedapen-eremuaren arabera.**

Egunkariak	Helburuak	
	Legea bera	Bestelako helburuak
Estatuko eskuina	14 (% 51,9)	13 (% 48,1)
Estatuko ezkerria	13 (% 40,6)	19 (% 59,4)
EAEko eskuina	10 (% 43,5)	13 (% 56,5)
EAEko ezkerria	5 (% 16,7)	25 (% 83,3)

### 3.4. Markoak editorialetan

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeari buruzko editorialen analisia bukatzeko, egunkariek erabiltzen zituzten markoak aztertu ziren. Hurrengo taulan ikus daitekeenez (ikus 2. taula), erantzukizunak egoztearen markoa erabili zen gehien ( $X=0,46$ ). Ondoren gatazka-markoa ( $X=0,36$ ), pertsonetikiko interesa ( $X=0,29$ ) eta moralitasuna ( $X=0,18$ ) erabili ziren. Gutxien ondorio ekonomikoen markoa ( $X=0,07$ ) erabili zen.

**2. taula. Bost markoen erabileraren estatistikoak.**

Markoak	Batezbestekoa*	Desbideratze estandarra
Erantzukizuna	0,46	0,25
Gatazka	0,36	0,37
Pertsonetikiko interesa	0,29	0,29
Moraltasuna	0,18	0,20
Ondorio ekonomikoak	0,07	0,15

\*Tartea: 0tik 1era.

Ikerketaren helburuei jarraituz, editorialetan ikertutako bost markoen erabileran desberdintasunik zegoen testatu zen egunkarien hedapen-eremu eta kokapen ideologikoaren arabera. Horretarako, bariantza-analisiak egin ziren marko bakoitzaren erabilera aztertuz.


Erantzukizunak egoztearen markoari dagokionez, egindako bariantza-analisiaren arabera, ezkerreko egunkariak ( $X=0,51$ ) sarriago erabili ohi zuten eskuinekoak baino ( $X=0,38$ ) ( $F(1,80)=5,34$ ;  $p < 0,05$ ). Marko honen erabileran ez zen beste desberdintasun esanguratsurik topatu, ez hedapen-eremuaren arabera ezta bi aldagaien arteko interakziorik ere.

Egunkariak eginiko gatazka-markoaren erabileran desberdintasun esanguratsuak topatu ziren egunkarien hedapen-eremuaren arabera ( $F(1,80)=12,34$ ;  $p < 0,01$ ), baita egunkarien posizio ideologikoaren eta hedapen-eremuaren arteko interakzio-efektuaren arabera ere ( $F(1,80)=9,48$ ;  $p < 0,05$ ). Emaitzek azaldu zutenenez, EAEko egunkariak Estatukoak baino gutxiago erabiltzen zuten marko hau, baina eskuineko ideologia duten egunkariak soilik. Izan ere, Tukey-ren post-hoc analisiak argitu zutenenez, EAEko eskuineko egunkariak ( $X=0,13$ ) beste egunkari guztiek baino gutxiago erabiltzen zuten gatazka-markoa (ikus 4. irudia).

Pertsonetikiko interesaren markoa aztertzean, EAEko egunkariak ( $X=0,24$ ) Estatukoak ( $X=0,15$ ) baino sarriago erabiltzen zutela aurkitu zen ( $F(1,80)=5,71$ ;  $p < 0,05$ ). Ez zen beste desberdintasun estatistikoki esanguratsurik egon.

Moraltasunaren markoari dagokionez, berriz, egunkarien posizio ideologikoak soilik izan zuen eragina haren erabileran ( $F(1,80)=15,91$ ;  $p < 0,001$ ). Horrela, eskuineko lerro editoriala zuten egunkariak ( $X=0,22$ ) ezkerrekoak baino ( $X=0,08$ ) sarriago erabiltzen zuten marko hau.

Bukatzeko, ondorio ekonomikoaren markoan bai egunkarien kokapen ideologikoak ( $F(1,80)=9,52$ ;  $p < 0,05$ ), bai egunkarien hedapen-eremuak ( $F(1,80)=15,51$ ;  $p < 0,001$ ), baita bi aldagai horien arteko interakzioak ere izan zuten eragina ( $F(1,80)=12,18$ ;  $p < 0,001$ ). Tukey-ren post-hoc analisiaren arabera, Estatuko eskuineko egunkariak beste egunkari guztiek baino gehiago ( $X=0,24$ ) erabili zuten ondorio ekonomikoaren markoa (ikus 4. irudia).



**4. irudia. Marko bakoitzaren erabileraren batezbestekoa egunkarien posizio ideologiko eta hedapen-eremuaren arabera.**

#### 4. Ondorioak eta eztabaida

Esku artean dugun ikerketaren bidez egunkariak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea nola tratatu zuten behatu dugu. Horretarako, egunkarien iritzi-saila erabili da, bertan gaiak informazio hutsetik haratago landu ohi baitira. Analisisian dimentsio kuantitatiboa (gai honi buruz zenbat publikatu zen) eta kualitatiboa (legea iritzi publikoari nola aurkezten zitzaion) kontuan hartu dira. Horrenbestez, ikerketa honetan, hedabideek errealitate sozialaren errepresentazioaren sorkuntzan eta transmisioan duten garrantzia landu da.

##### 4.1. Legearen oihartzuna: agerikotasuna kopuruetan eta ebaluazioan

Aztertu den lehenengo arazoa legearen agerikotasunarena izan da, artikuluko kopuruetan nahiz irudi edo ebaluazio orokorrean oinarrituz. Horrela, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen inguruko eztabaida publikoa denboraren poderioz presentzia galtzen joan da, egunkarietako iritzi-sailean argitaratutako artikuluko kopurua aztertuta. Era berean, legeari buruzko aurkako iritzia nagusitzen joan da, egunkariaren lerro ideologikoaren araberrako desberdintasunak egon diren arren. Beraz, arazoaren agerikotasunari dagokionez (Etnman, 1993; McCombs, Lopez eta Llamas, 2000), legearen inguruko eztabaida alor publikotik desagertzen joan da, gelditutako hondarrak negatiboak izanik. Halere, hasierako urteetan zabalduetako irudikapena positiboa izan da, legeari buruz egindako ebaluazio orokorrean aztertuta; barreiatze hori garrantzitsua da, orduantxe erakartzen baitzuen arreta gehien.

Denboraz gain, ideologiak ere eragin du agerikotasun horretan. Izan ere, legeari buruzko eztabaida ezkerreko egunkarietan izan da handiagoa eta jarrera aldekoagoak agertu dira eskuineko egunkarietan baino. Espero zitezkeen

ezberdintasun horiek batzuen eta besteen balio ideologikoen arabera. Baina gainera, Estatuko egunkarien artean EAeko egunkarien artean baino alde nabarmenagoak aurkitu dira.

Hortaz, kopuruetan zein ebaluazioan azaldutako patrioiak *mass media*en bitartez sortu nahi den iritzi publikoan goi-elite politikoez izandako eragina isla dezake (Entman, 1993). Izan ere, EAEn eta Estatuan berdintasun-legeak ideologia ezberdineko alderdi politikoez bultzatu zituzten, EAekoak (EAJ-PNV) Estatukoak (PSOE) baino izaera eskuinekoagoak izanik. Horrenbestez, estatu mailako egunkarietan eginiko legearen balorazioak eragin ideologikoa nahiz joko politikoa islatuko lituzke: ezkerreko egunkariak legearen oinarriekin bat egiten dute eta haren sustatzaile den gobernu babesten dute, eta kontrara eskuineko egunkariak, ez dute ez gobernu ezta legea ere begi onez ikusten. Bestalde, EAEn disonantzia edo konplexutasun-maila altuagoa azaltzen da, posizioak samurtuz: ezkerreko egunkariak legea babestuko lukete baina gobernu tentuz tratatuko lukete, eta eskuinekoak kontrara, gobernu babestuko luketenez legeari buruzko iritzia moderatuko lukete. Horra hor diskurtsoaren alderdi agerikoetan komunikabideek beraiek *burututako framing*-aren adibidea (Kenix, 2008; Van Gorp, 2007).

#### **4.2. Legearen aurkezpena editorialetan: edukia eta erabilera**

Aztertutako bigarren arazoa Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeari buruz egunkariak editorialetan egindako trataera izan da. Editorialek legea bera izan dute aztergai batzuetan, eta bestelako helburuetarako aipatua izan da besteetan. Edonola, Semetko eta Valkenburg (2000) autoreek definitutako markoak aztertuz erabilera baldintzatua egiaztatu da.

Lehenengo, markoen edukiari helduz, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea erantzuleak dituen eta konpondu beharra dagoen arazo gisa definitu da editorialetan, politika-arloan ohikoak diren markoak izanik (Semetko eta Valkenburg, 2000); oro har, ez dira nabarmendu pertsonetikiko ondorio edo eraginak, eta izan ditzakeen ondorio ekonomikoei lekuri txikiena eman zaie. Horrela, espero liteke legearen lorpen eta porroten erantzukizun eta errua pertsona edota organizazio politikoei egozte, batez ere, Zapatero presidenteari eta haren gobernuari. Izan ere, aktore nagusiak (Gobernuak) kontrol- eta intenzionalitate-maila altuak dituenean (An eta Gower, 2009), komunikabideek kausen egozpenean jartzen dute arreta. Era berean, bigarren marko erabili gatazkarena izatea ere ulergarria da: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen helburuak kontuan hartuz, askotariko gatazka-alor eta aktoreak ager daitezke, hala nola enpresa, administrazio publikoa, politikariak edo feministak. Bestetik, egunkariak ez diete hainbesteko garrantzia eman Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen ondorio ekonomikoei, immigrazioaren gaian aurkitu den bezala (Muñiz eta Igartua, 2004).

Bigarrenik, egunkarien ezaugarrien arabera markoak zelan erabiltzen diren aztertuz, egunkariak beren hedapen-eremu eta posizio ideologikoaren arabera era desberdinean kokatu dituzte editoriak. Ezkerreko egunkariak eskuinekoak baino gehiago erabili dute erantzukizunaren markoa; eskuinekoak, aldiz, ezkerrekoak baino sarriago erabili dute moraltasunaren markoa, baita gatazka-markoa eta

ondorio ekonomikoen markoa ere, Estatuko eskuineko egunkarien kasuan. Gainera, ez da ahaztu behar ezkerreko eta eskuineko egunkariak legearen aldeko eta kontrako iritzia agertzen zutela; markoen erabilerak jarrera horiei laguntzen die. Esaterako, moraltasunaren markoa erabiliz, pertsonen judizio moraletan eragin daiteke, berdintasunaren kontrako usteak eta joerak sortuz; edo gatazka-markoa erabiltzeak desadostasunak eta eztabaidak nabarmentzea dakar, gaiaren muina alboratuz.

Hedapen-eremuari lotuz, EAEko egunkariak gehiago erabili dute pertsonetikiko interesaren markoa, Estatukoek baino. Ikerketek marko horrek pertsonen erantzun emozionaletan eragina duela aurkitu dute, jorratutako gaiaren kausarekiko erantzukizun- eta erru-egozpenaren aurreale garrantzitsua izanik (Cho eta Gower, 2006). Halere, hedapen-eremu txiki edo konkretuetako egunkarietan hartzaileekin hurbiltasuna bultzatzeko era baliagarria izan daiteke (Kenix, 2008). Gogoratu behar da EAEko ezkerreko egunkariak bestelako helburu edo gaien harira eztabaidatzen zutela legea editorial gehienetan, legea bera gutxitan zela eztabaidagai. Izan ere, EAEko egunkarietan legeari erreferentzia egitean egunerokotasuneko gertakariari erreferentzia anitz egiten zitzairen, besteak beste, emakumeen eskubideekin lotutako ospakizunak edo urraketekin lotutako ekintzak, Hondarribiko edo Irungo Alardeetan parte hartzeko emakumeekiko diskriminazioarekin loturikoak esaterako. Horrelako gertakarietan ohikoa da pertsonetikiko eragina aipatzea (diskriminazioak, erasoak, kalteak, etab.).

Beraz, egunkariak edukiak eratu egiten dituzte, esanahiak zabalduz. Evidentziak badaude albisteak kokatzeko erak interes politikoetatik haratago interes ideologikoak ere babesten dituela esateko (Berganza, 2008; Igartua *et al.*, 2004; Martin eta Oshagan, 1997; Reese, 2001; Rodríguez eta Mena, 2008). Ideia honek komunikabide eta interes politikoen artean egon daitekeen loturari buruzko hausnarketara garamatza. Izan ere, kazetariari objektibotasun-printzipioen arabera lan egiteko eskatzen zaien arren, ezin uka daiteke komunikabideak estruktura sozio-politiko, ekonomiko eta kulturalaren zati direla, eta ondorioz influentziadun agente bihurtzen direla. Ikerketa honetan behatu ahal izan den bezala, ideologiaz eskuineko zein ezkerreko egunkariak berdintasun-legea aurkezteko eta ulertzeko eskema ezberdinak erabiltzen dituzte. Era berean, komunikabidearen beraren testuinguru kulturalak ere (Van Gorp, 2007) (Estatukoa edo Erkidegokoa den) eragina du legea baloratzeko erabilitako irizpideetan.

Bukatzeko, etorkizuneko ikerketei begira, *framing*-aren ondorioei buruzko hausnarketak berebiziko garrantzia izango luke. Markoak mundu soziala transmititzen, interpretatzen eta ebaluatzen laguntzen duten lanabesak dira (Van Gorp, 2007), eta beraien bitartez, «arazoa»-ri buruzko informazioa emateaz gain, berau nola interpretatu esaten baitigute komunikabideek. *Framing*-a aldagai aske gisa aztertea ekarpen interesgarria litzateke. Hau da, jendeak berdintasun-legeari buruz duen iritzian nolako eragina dauka prentsak argitaratutakoak? (frame-setting) (De Vreese, 2005). Agian, legea onartu eta martxan jarri zenetik lau urte igaro diren honetan, momentu egokia izan daiteke berdintasunaren inguruan egoniko negoziazio kolektiboaren emaitzak ebaluatzeko.

## Bibliografía

- Alcover, N. eta Simón, M.T. (1998): "La trama oculta de la gran prensa española", *Cristianisme i Justícia*, **80**, 1-24.
- Ann, S.K. eta Gower K. (2009): "How do the news media frame crises? A content analysis of crisis news coverage", *Public Relations Review*, **35**, 107-112.
- Barker-Plummer, B. (1995): "News as a Political Resource: Media Strategies and Political Identity in the U.S. Women's Movement", *Critical Studies in Mass Communication*, **12**.
- Berganza, M.R. (2008): "Medios de comunicación, "espiral del cinismo" y desconfianza política. Estudio de caso de la cobertura mediática de los comicios electorales europeos", *Zer Aldizkaria*, **13(25)**, 121-139.
- Bustos, R. (2007): "Hacia la igualdad sustancial: reflexiones a raíz de la Ley Orgánica para la igualdad efectiva de mujeres y hombres", in Á. Figueruelo; M.L. Ibáñez eta R.M. Merino (arg.), *Igualdad ¿para qué? A propósito de la Ley Orgánica para la igualdad efectiva de mujeres y hombres*, Comares, Granada, 72-105.
- Castro, M.A. Eta Álvarez, D. (2007): *La igualdad efectiva de mujeres y hombres a partir de la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo*, Aranzadi, Nafarroa.
- Cho, S. eta Gower, K.K. (2006): "The Effect of Framing on Public's Perception of Crisis: Human Interest Frame Effect on Attributions to Responsibility and Blame", in *Paper presented at the annual meeting of the International Communication Association*, Dresden International Congress Centre, Dresden, Alemania.
- De Vreese, C.H. (2005): "News framing: Theory and typology", *Document Design*, **13(1)**, 51-62.
- EAO (2007): Ley orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres. 71. zk., 2007ko martxoaren 23a, 12.611.-12.645. or.. Eskuragarri: <<http://www.boe.es/boe/dias/2007/03/23/pdfs/A12611-12645.pdf>>.
- EHA (2005): 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa. 42. zk., 2005eko martxoaren 2a, 3.217.-32.68. or.. Eskuragarri: <[http://www.euskadi.net/cgi-bin\\_k54/bopv\\_20?e&f=20050302&a=200500982](http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?e&f=20050302&a=200500982)>.
- Entman, R. (1993): "Framing: Toward Clarification of a Fractured Paradigm", *Journal of Communication*, **41**, 51-58.
- Gamson, W. (1992): *Talking Politics*, Cambridge University Press, New York.
- Gitlin, T. (1980): *The Whole World Is Watching: Mass Media in the Making and Unmaking of the New Left*. Berkley, University of California Press, Kalifornia.
- Goffman, E. (1974): *Frame Analysis: An Essay on the Organization of Experience*, Harper & Row, New York.
- Humanes, M.L. (2009): "Nuevos temas noticiosos en las elecciones de 2004: la presencia de metacobertura en la prensa española", *Zer Aldizkaria*, **14(26)**, 105-128.
- Igartua, J.J.; Humanes, M.L.; Muñiz, C.; Cheng, L.; Mellado, C.; Medina, E. eta Erazo, M. A. (2004): "Tratamiento informativo de la inmigración en la prensa española y opinión pública", in A. Verano (arg.), *Setenta años de periodismo y comunicación en América Latina*, Ediciones Universidad de La Plata, Buenos Aires.
- Igartua, J.J., Muñiz, C. eta Cheng, L. (2005): "La inmigración en la prensa española. Aportaciones empíricas y metodológicas desde la teoría del encuadre noticioso", *Migraciones*, **17**, 143-181.
- Kenix, L.J. (2008) "From media frame to social change? A comparative analysis of same-sex rights in the United States and New Zealand press", *Australian Journal of Communication*, **35(3)**, 105-128.

- Kinder, D. eta Sanders, L (1996): *Divided by color*, The University of Chicago Press, Chicago.
- Knight, P.(1999): *Interviewing for social scientist*, SAGE publications, Londres.
- Martin, C.R. eta Oshagan, H. (1997): "Disciplining the Workforce: The News Media Frame a General Motors Plant Closing", *Communication Research*, **24(6)**, 669-697.
- McCombs, M.E. eta Shaw, D.L. (1972): "The Agenda-Setting Function of Mass Media", *Public Opinion Quarterly*, **36**, 176-187.
- McCombs, M. (2004): *Setting the Agenda: the mass media and public opinión*, MA, Blackwell Publishing, Malden.
- McCombs, M.; Lopez-Escobar, E. eta Llamas, J.P. (2000): "Setting the agenda of attributes in the 1996 spanish general election", *Journal of Communication*, **50(2)**, 77-92.
- Nash, M. (1999): *Rojas. Las mujeres republicanas en la Guerra Civil*, Taurus, Madril.
- Otero, L (2011): *Aproximación a las representaciones sociales sobre la salud de la población inmigrante en el discurso periodístico en prensa escrita española (2000-2006)*, Instituto de salud Carlos III, Madril.
- Pan, Z. eta Kosicki, G. (2001): "Framing as Strategic Action", in S. Reese; O. Gandy eta A. Grant (arg.), *Framing Public Life: Perspectives on Media and our understanding of the social world*, Lawrence Erlbaum, Mahwah, NJ, 35-66.
- Pan, Z. eta Kosicki, G.M. (2005): "Framing and the understanding of citizenship", in S. Dunwoody; L.B. Becker; G.M. Kosicki eta D.M. McLeod (arg.), *The evolution of key communication concepts: Honoring Jack M. McLeod*, Hampton Press, Cresskill, NJ, 167-207.
- Ruiz, R. (2000): "Transformaciones, pervivencias y estados de opinión en la situación jurídica y social de las mujeres en España (1931-1939)", *Historia y Comunicación Social*, **5**, 229-254.
- Scheufele, D. (1999): "Framing as a Theory of Media Effects", *Journal of Communication*, **49(4)**, 103-22.
- Scheufele, D. eta Tewksbury, D. (2007): "Framing, Agenda Setting, and Priming: The evolution of Three Media Effects Models", *Journal of Communication*, **57**, 9-20.
- Semetko, H. eta Valkenburg, P.(2000): "Framing European Politics: A Content Analysis of Press and Television News", *Journal of Communication*, **50(2)**.
- Valencia, J.F. Gil de Montes, L.; Sansinenea, E.; Erdozia, E.; Usabiaga, E. eta Ripalda, B. (1998): "Komunikabideak eta Taldearteko Mintzaira Soslai: Picassoren "Guernica" Bilboko Guggenheim-era ekartzearen inguruko polemika", *Uztaro*, **24**, 89-101.
- Valencia, J.F.; Gil de Montes, L. eta Ortiz, G.(2012): "Normative regulations and the use of language in describing political events: an analysis of the pragmatic use of language on newspapers", in Annamaria de Rosa (arg.), *Social Representations in the Social Arena*, Routledge, Londres, 59-93.
- Van Dijk, T.A. (1997): *Racismo y análisis crítico de los medios*, Paidós, Bartzelona.
- Van Gorp, B. (2007): "The Constructionist Approach to Framing: Bringing Culture Back", *Journal of Communication*, **57(1)**, 60-78.

